



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilak 29

Vitoria-Gasteiz, 29 de abril de 2020

COVID 19

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

COVID-19aren mehatxuaren testuinguruan, Euskadiko produkzio-jarduerari berriro ekiteko eta mantentzeko proiektua (PRAP Euskadi)

JARDUERARI BERRIRO EKITEAN ETA TXERTORIK EZ DAGOEN BITARTEAN COVID-19A HEDATZEA ERAGOZTEKO OINARRI TEKNOLOGIKOKO AZPIEGITURA BAT ERABILIKO DU EUSKO JAURLARITZAK

- **Maiatzean zehar BRTAko langileekin eta garraio publikoko profesionalekin lehen proba pilotua egingo da, Adimen Artifiziala aplikatuz Euskadiko laborategi-sarean kudeatutako test estentsiboen prestaketan oinarrituta**

PRAP Euskadi abian jartzeko testuingurua

Hamabost eguneko aurreikuspenarekin hasi zen eta ia bi hilabetez luzatu den konfinamendu baten prozesuan gaude. Halaber, fase berri baten atarikoetan gaude. Horrek, COVID-19arentzako txerto eraginkorrik ez dagoen bitartean, errealitate berri bat kudeatzea eskatzen digu. Errealitate horretan, epe mugagabe eta ezezagun batean birusarekin batera biziko den jarduera bat pixkanaka berreskuratu beharko da.

Testuinguru ezezagun horren aurrean erabakigarria da jarduerara itzultzea, gerora ager daitezkeen kalteak edo berragertzeak murrizteko bitartekoak ezarriz. Horren haritik, eta Eusko Jaurlaritzak lehenetsun osoa ematen dion kudeaketa sanitarioarekin batera, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak **oinarri teknologikoko ekimen integral** bat diseinatu du, jauzi kualitatiboa emateko eta orain arte birusari eusteko neurrietan erabilitako sistematikari garrantzi handiagoa emateko.

Ekimen horren arabera, pertsona immuneak eta ez-immuneak identifikatzen badituzte, euskal erakundeek (enpresak, erakundeak, administrazioa...) euren langileen osasuna babesteko neurri egokienak pertsonalizatu ahal izango dituzte, eta, aldi berean, produkzio-, gizarte- eta ekonomia-jarduerak, baita industria-jarduerak ere, oro har indarberritzeko balioko diete.

PRAP Euskadin iraulitako BRTAren sistema teknologikoa

Konfinamendu fase honetan eta gaixotasunak eragin handiena zuen unean, BRTA sistema osasun arloko beharrak bilatzeko laguntza ematen ahalegindu da.

Gaur EHAAAn argitaratutako Osasun sailburuaren 2020ko apirilaren 24ko Aginduaren (COVID-19a atzemateko proba diagnostikoak nola egin eta nola jakinarazi zehazten duena) arabera, Euskadin kokatutako titulartasun pribatuko

diagnostiko klinikoko osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimendu guztiak, eta bertan ari diren langile guztiak Osasun Sailaren esanetara daude, Euskadiko osasun-sistemako baliabideak osatzeko helburuarekin.

Testuinguru horretan Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak honako proiektu hau diseinatu eta bere gain hartu du: *COVID-19aren mehatxuaren testuinguruan Euskadiko produkzio-jarduerari berriro ekiteko eta mantentzeko proiektua (PRAP Euskadi).*

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko giza baliabide, ekipamendu eta teknologia guztiak bateratu nahi dira, Osasuneko Euskal Sistemaren eta, oro har, Gizartearen eskura jartzeko. Tresna baliagarria da normaltasun berrira iragaten laguntzeko eta, behin betiko soluzioa aurkitu arte — txerto bat edo tratamendu eraginkor bat aplikatuz— birusarekin elkar bizitzea ahalbidetzeko.

Jarduerari berriro ekitea eta mantentzea, birusa gehiago hedatzea eragozten saiatuz

Ekimen horren —ibilbide luzekoa eta epe ertainera emaitzak emango dituela aurreikusiz— **helburua da** Euskadiko produkzio-jarduera (soziala eta ekonomikoa) berreskuratzea eta, batez ere, mantentzea, birusaren hedapena geldiaraziko ez duen txerto bat ez dagoen bitartean, langileen artean birusaren hedapena geldiarazteko metodologia eraginkorra modu sistematizatuan aplikatuz.

Probak egiteko prozesu hedagarria

Erakunde eta enpresa publiko zein pribatuei zuzendutako **probak egiteko prozesu hedagarri** batean oinarritutako esku-hartze protokolo bat egitea eta ezartzea aurreikusten da. Protokolo horren bitartez lan arloan birusa kutsatzeko arriskuak eta hura azaltzekoak murriztea bilatzen da; beraz, langileak ahalik eta segurtasun-berme eta jarduteko ahalmen handienarekin euren lanetara itzultzea da helburua.

Euskadiren ahalmen zientifikoak eta teknologikoak

1. Analisi-laborategiak

Gauzatu behar diren eginkizunak behar bezala egikaritzeko, balidazio zientifikoko eta klinikoko laginketa-laborategien eta -taldeen sare bat abian jartzea oso garrantzitsua da. Horiei esker azterketak eta diagnostikoak ahalik eta langile gehienei egitea erabat bermatuko da. Proiektuak eskatzen dituen laginketa- eta analisi-ahalmenak laborategi sareari emateko beharko diren laborategi guztiak identifikatzeko eta elkartzeko sistematika finkatuko da, Osasun Sailarekin elkarlanean. Esan dezakegu une honetan prozesu hori ia amaituta dagoela NEIKERen kasurako, eta ondoren, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko beste zentro batzuekin jarraituko dutela egiten.

2. Analitika eta Adimen Artifiziala PRAP Euskadin

Profesionalen artean egindako testen ondorioz eskuratutako emaitzak eta euren lan-jarduerari lotutako ohituren galdeketaren ondorioz metatutako informazioa azpiegitura teknologiko batean analizatuko dira.

Eskuratutako datuen kudeaketa etorkizunari begira oso garrantzitsua izango denez, metatutako informazioak pandemiaren hedapena modu matematikoan moldatzen lagundu dezake. Gerta daitekeen hedapenaren intentsitatea eta modua erabakigarria izan daitezke jarduteko eta kutsatutako guneei eusteko.

Gainera, datu horiek gure telefono mugikorretako aplikazioetatik jasotako informazioarekin —adibidez, bihotz-maiztasuna eta oxigeno-asetasuna— gurutzatzea oso lagungarria izan daiteke pertsonengan sintomatologiak goiz hautemateko.

Adimen Artifizialak eta datuen algoritmiak ondorioak ateratzeko balioko dute, Osasun Publikoko Sistemarentzako zein enpresa-erakundeetan bertan erabakiak hartzeko balio gehigarriko informazioaren bidez.

3. Kontaktuen trazabilitatea / Esposizioak hautematea

Lanean normaltasuna berreskuratzen denean, infekzioak kontrolatzeko eta eusteko alderdi nagusietako bat kontaktuen trazabilitatea da, pribatutasuna gordez eta datuak babesteko araudia betez. Hainbat ekimen abian dira, adibidez, COVID-19.eus aplikazioak barne hartzen duen “kontaktuen zirkuluak” erregistroa. Ekimen horiek proiektuan modu egokian integratu beharko dira.

Sektoreetako klusterrekin, enpresekin eta beste eragile batzuekin akordioak

Halaber, PRAP Euskadik lankidetzak-akordioak aurreikusi ditu, SPRI Taldearen eta egokia iruditzen zaien klusterren, enpresa-elkarteen eta enpresen artean. Haietan, jarduteko prozedura homogenea ezarriko da eta Osasun Sailak eskatutako baldintzak betetzea bermatuko da.

Azken finean, prozedura horretan jardungo duten eragile guztiek euren langileen informazio anonimizatua Osakidetzarekin eta ekimen honen berezko plataforma teknologiko espezifikoarekin partekatu beharko dute.

Langileen kudeaketa

Pertsona immune, COVID-19an positibo eman duen pertsona, COVIDen negatiboa eman duen pertsona eta pertsona ez-immune moduan duten izaeraren arabera, pertsonak katalogatzeaz gain, plataformak langileen bizilekuari, beren bizikidetzak-unitatea osatzen duten pertsonen kopuruari, ohiko etxebizitzan kutsatzeko arriskua izan dezaketen pertsonari eta aurretik izan dituzten gaixotasunei buruzko informazioa —erabat anonimizatua— kudeatuko du plataformak. Gainera, lan-inguruneke ohiturei buruz egindako inkesten datuak,

eta hedabide espezializatutatik edo hedabide jeneralistetatik eskuratutako gaixotasunaren bilakaeraren inguruko informazio orokorra bilduko ditu.

Azken finean, testa langile gehiagori egiten dieten neurrian, aberasten eta hobetzen joango den “datuak ustiatzeko” tresna bat da.

PRAP Euskadiren gobernantza

Proiektu horren garapenaren ardura Eusko Jaurlaritzak eta honek Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren eta Osasun Sailaren arteko koordinazioan finkatuko dituen mekanismoek izango dute. Bi sail horiek, SPRIrekin batera, koordinazio-bulego bat osatuko dute, eta SPRI izango da projektuburua. Proiektuak Idazkaritza Tekniko baten babesa jasoko du.

Basque Research and Technology Alliance zentroko langilez osatutako idazkaritza teknikoa ekimenaren koordinazioaren gune nagusia izango da, bai ikuspegi logistikotik bai bertan parte hartzen duten erakundeen —enpresak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko zentroak— kudeaketaren ikuspegitik. Egunean 24 ordutan funtzionatuko du, asteko 7 egunetan, eta lan-fluxu osoa enpresekin koordinatzeaz arduratuko da.

Hur-hurreko proiektu pilotua maitzean

PRAP Euskadiren aurretik proba pilotu azkar bat egingo da. Proba hori datorren astean jarriko da martxan, BRTA osatzen duten eragileetako profesionalen eta garraio publikoko langileen lagin batean oinarrituz. Horri esker, prozesua balioetsiko da eta bertan hobekuntzak eta/edo aldaketak egitea proposatuko da, gerora, hala eskatzen duten Euskadiko enpresa guztietan aplikatzeko.

PRAP Euskadiren lehen proba pilotu hori honako elementu hauetan oinarrituta gauzatuko da:

- ✓ Barne hartzen dituen kolektiboak: BRTAko 1000 profesional eta 1000 Garraio Publikokoak.
- ✓ TESTa egiteko erabiliko duten teknika: Test azkar serologikoak eta PCRak uztartuko dituzte emaitza positiboa ematen duten langileen artean.
- ✓ Nork egingo du: Serologikoak horretarako homologatutako laborategiek egingo dituzte, eta PCRak Neiker-BRTA zentro teknologiko publikoko laborategiak.
- ✓ Lan-ingurune ohiturei buruz bete beharreko galdeketa
- ✓ Azpiegituran aplikatutako teknologia
- ✓ Lehen proba pilotuaren garapena: maitatza

Euskadiren baliabideei eta ahalmenei buruzko ondorioak

Euskadin badago euskal enpresei prozesu hori azkartzen laguntzeko ahamen teknologikoa eta antolakuntzari lotutakoa. Hala, Eusko Jaurlaritzaren asmoa da —Ekonomiaren eta Garapen Azpiegitura Sailaren bidez— hori guztia betetzeko behar diren tresnak abian jartzea.

Horregatik, hemen proposatzen den proiektua oso garrantzitsua da euskal industriari eta produkzio-jarduerako —soziala eta ekonomikoa— eragileei COVID19aren eragina murrizten laguntzeko. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareak, BRTAren bitartez, behar horri erantzuteko bere ahalmenak antola ditzake. Proiektuak helburu hori lortzeko behar dituen baliabide ekonomiko, finantzario eta logistiko guztiak jarriko ditu martxan.

COVID 19

Enplegua eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK KULTURAKO PROFESIONALENTZAKO DEIALDIA ONARTU DU, HELBURU DUENA PROFESIONAL HORIEK LAGUNTZEA BEREN OHIKO JARDUERA BERTAN BEHERA GERATU BADA ALARMA EGOERAREN ONDORIOZ

- **Enplegua eta Gizarte Politiketako Sailak sustatu du, Lanbideren bitartez, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin lankidetzan, eta 2,5 milioi euroko aurrekontua izango du**
- **Arau orokor gisa, laguntzaren hileko zenbatekoa 2019ko dirusarrera garbien hileko batezbestekoaren % 70aren baliokide izango da; gehienez ere 1.200 euro jaso ahal izango dira hilean**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak bere gaurko bilkuran onartu du kulturako langileentzako ezohiko diru-laguntza deialdia, helburu duena profesional horiek laguntzea beren ohiko jarduera Alarma Egoeraren ondorioz bertan behera geratu bada edo atzeratu bada. Lanbidek eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak sustatu dute iragan apirilaren 15ean iragarri zen 'Kulturako profesionalen laguntzeko' programa hau, eta 2,5 milioi euroko aurrekontua izango du.

Deialdi honen bitartez kulturako profesionalen ekonomia-jarduera lagundu nahi da, jakinda haien kultura-jarduera neurri handi batean eten behar izan dela azken asteotan. Horretarako, Enplegua eta Gizarte Politiketako Sailak, Lanbideren bitartez, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, elkarrekin lan egin dute laguntzak kulturaren errealitate bereziarekin bat etor daitezen.

Onuradunak

Programa hau zuzenduta dago egoitza pertsonala eta fiskala Euskadiko Autonomia Erkidegoan duten, adinez nagusiak diren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortzearen artisten jarduera profesionala duten pertsonen (oharraren amaieran, laguntzak jaso ditzaketen jardueren zerrenda erantsi da). Era berean, deialdian jaso da Covid 19aren ondorioz jarduerak eta programak bertan behera utzi behar izan zaizkiela.

Laguntza horiek jaso ditzaketen pertsonak, gainera, era eskusiboan aritu behar dira profesionalki behar behera geratutako kultura-jardueran. Jarduera horretan eskusiban aritzen direla ulertuko da haien diru-sarreraren % 60 hartatik eskuratzen dutenean.

Laguntzen zenbatekoa

Arau orokor gisa, laguntzaren hileko zenbatekoa hauxe izango da: 2019an izandako dirusarrera garbien hileko batez bestekoaren % 70aren baliokidea (betiere kultura edo arteari lotutako jarduerak kontuan hartuta). Gehienez 1.200

euro jaso ahal izango dira hile bakoitzean. Pertsona eskatzailea kultura edo artearen arloan profesionalki 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko martxoaren 13ra hasi bada, biak barne, zenbatekoa 950 euro/hilabete izango da (gutxieneko soldata, alegia). Halaber, laguntzak iraungo du 2020ko martxoaren 14tik harik eta Alarma Egoera bukatzea agindu eta kultura- zein arte-arloko ekitaldi kolektibo presentzialetara itzultzea baimentzen den azken egun arte. Gehienezko epe bat ezarri da: 6 hilabete.

Izapidea

Diru-laguntzak jasotzeko eskaerak Lanbideren egoitza elektronikoaren bitartez aurkeztuko dira, ahal dela, hau da, [www.lanbide.euskadi.eus_webgunearen bidez](http://www.lanbide.euskadi.eus_webgunearen_bidez). Baldin eta pertsona eskatzaileak beharrezko bitarteko elektronikorik ez badu, eskaera Zerbitzu Orokorretan edo Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren edozein Enplegu Bulegotan aurkez dezake, baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan ezarritako beste edozein bitartekoren bitartez ere.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak aholkularitza pertsonalizatu bat eta bi gida jarri ditu martxan kulturaren langileei zuzenduta, Covid-19aren krisiaren aurrean martxan jarritako neurri hauen eta beste batzuen berri emateko. Interesatuak Kulturklik Pro-n eskura dezakete aholkularitza hori (kulturklik.euskadi.eus/aholkularitza/).

Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Gaur onartutako deialdiko espedientean biltzen denaren arabera, laguntza horiek bateraezinak izango dira beste hauexekin: jarduera uzteagatiko ezohiko prestazioa; COVID-19ak ekarritako osasun-krisi egoera kudeatzeko ezarri den Alarma Egoeraren eraginpean jarduera uzteagatiko ezohiko prestazioa; langabezia-prestazioa; edo dirusarreraren beste edozein ordezkiko prestazio, laguntza edo diru-laguntza, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak edo beste edozein Administraziok edo erakunde publikok edo pribatuk eman dituenean.

Laguntza horien inguruko xehetasun guztiak Euskadiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira datozen egunotan; hurrengo egunetik aurrera hasi ahal izango dira eskatzen.

Laguntzak eskura ditzaketen jardueren zerrenda, Jarduera Ekonomikoen Indizearen (JEIren) arabera

1. Sekzioa: enpresa-jarduerak

96. Multzoa. Aisialdi- eta kultura-zerbitzuak.

961 Taldea. Zinemagintza (bideogintza barne) eta jarduera horri lotutako zerbitzuak.

961.1 Epigrafea. Zinemagintza (bideogintza barne).

961.2 Epigrafea. Film- edo zinema-zinten (bideoa barne) bikoizketa, sinkronizazioa eta muntaia, enpresa ekoizleak berak egiten ez duenean.

961.3 Epigrafea. Film- edo zinema-zinten ekoizpenerako eszena-apainketak, enpresa ekoizleak berak egiten ez duenean.

966 Taldea. Bibliotekak, artxibategiak, museoak.
966.1 Epigrafea. Bibliotekak eta museoak.

86. Multzoa. Lanbide liberal, artistiko eta literarioak.
861 Taldea. Pintoreak, eskulturgileak, zeramikariak, artisauak, grabatzaileak eta antzeko artistak.
862 Taldea. Artelanen berriztatzaileak.

2. Sekzioa: lanbide-jarduerak

- 226 Taldea. Soinu-teknikariak.
227 Taldea. Argiztapen-teknikariak.

3. Sekzioa: arte-jarduerak

01. Multzoa. Zinema, antzerki eta zirkoari lotutako jarduerak.
011 Taldea. Zinema eta antzerki-zuzendariak.
012 Taldea. Zuzendaritza-laguntzaileak.
013 Taldea. Zinema eta antzerkiko antzezleak.
014 Taldea. Espezializatutako estrak, dobleak, konpartsak...
015 Taldea. Zinema, telebista eta bideogintzako kamera operadoreak.
016 Taldea. Umoristak, karikatoak, eszentrikoak, errezitatzaileak, ilusionistak...
017 Taldea. Apuntatzaileak eta errejidoreak.
018 Taldea. Zirkoko artistak.
019 Taldea. Zinema, antzerki eta zirkoari lotutako beste jarduera batzuk, BLSG.
02. Multzoa. Dantzari lotutako jarduerak.
022 Taldea. Dantzariak.
029 Taldea. Dantzari lotutako beste jarduera batzuk, BLSG.
03. Multzoa. Musikari lotutako jarduerak.
031 Taldea. Musika-irakasle eta -zuzendariak.
032 Taldea. Musika-tresnen interpreteak.
033 Taldea. Kantariak.
039 Taldea. Musikari lotutako beste jarduera batzuk, BLSG.

COVID 19

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

KORONABIRUSAK ERAGINDA KALTEBERATASUN EKONOMIKOKO EGOERAN DAUDEN ERRENTARIEI ETXEBIZITZA LIBREEN ALOKAIURUA ORDAINITZEKO LAGUNTZAK EMATEA ONARTU DU EUSKO JAURLARITZAK

Gobernu Kontseiluak Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburu Iñaki Arriolaren Agindua onartu du. Agindu horren bidez, COVID-19aren krisiaren ondorioz kalteberatasun ekonomikoko egoeran dauden Euskal Autonomia Erkidegoko alokairu libreko etxebizitza parkeko errentariei laguntza zuzenak ematea arautzen da.

Larrialdi sanitarioak eragindako krisiaren ondorioz langabezian geratu diren edo aldi baterako enplegu-erregulazioa jasan duten pertsonak laguntza horren onuradun izan daitezke, baita, langile autonomoak edo enpresariak izanik, euren diru-sarrerak edo salmentak % 40 edo gehiago murriztu zaizkienak ere.

Laguntza eskuratzeko oinarrizko baldintzak:

-Alarma-egoera deklaratu aurretik alokairu-kontratu bat sinatua edukitzea eta beste etxebizitza baten jabe ez izatea.

-Familia-unitatearen urteko diru-sarrera haztatuak 39.000 eurotik beherakoak izatea azken ekitaldi fiskalean —horixe da BOE etxebizitza bat eskuratzeko gehieneko zenbatekoa—, eta 50.000 eurotik gorako ondarea ez edukitzea.

-Errentaren zenbatekoak, komunitate-gastuek eta oinarrizko hornidurek, guztira, une horretan eskuragarri dituen diru-sarreraren % 30 gainditzea.

-Hileko alokairuaren zenbatekoa etxebizitza kokatua dagoen lurralde esparruari egoztekoa zaion batez besteko errenta —Alokairu Merkatuaren Estatistikaren (AME) datuen arabera— baino gutxienez 1,5 aldiz handiagoa ez izatea (familia ugarien kasuan, 1,75).

Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dauden Etxebizitzarako Prestazio Osagarriarekin (EPO) eta Etxebizitzaren Prestazio Ekonomikoarekin (EPE) bat etorri, laguntza hilean 250 euro artekoa izango da, eta sei hilabetez aplikatuko da, apiriletik irailera arte, zaurgarritasun-egoerak jarraitzen badu. Guztizko zenbatekoa 1.500 eurokoa izatera hel daiteke. Kopuru hori hiruhileko bi ordainketa eginez emango da.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak laguntza hori emateko 15,5 milioi euroko aurrekontua izango du.

Eskaerak aurkezteko epean Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta irailaren 30era arte luzatuko da. Ahal izanez gero, tramitazioa modu telematikoan egingo da, www.euskadi.eus webgunearen eta Alokabide SA sozietate publikoak www.alokabide.euskadi.eus helbidean dituen kanalen bitartez.

Kanal telematikoaren bidez eskuragarri dagoen eskaerarekin batera, baldintzak betetzen direla dioen erantzukizunpeko adierazpena eta diru-sarrerak frogatzeko dokumentazioa aurkeztu behar dira.

Deialdi ez-lehiakorra da eta honen laguntza finalista. Ohiko etxebizitzaren alokairua ordaintzeko edo martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 9. artikuluan bildutako Kreditu Ofizialeko Institutuaren abalez bankuek helburu horretarako emandako mikrokredituak itzultzeko erabili behar dira.

Bestalde, gaur onartutako Aginduaren bidez, programa horren laguntzak genero-indarkeriaren biktimetzako, euren ohiko etxebizitza utzaraztera behartzen dituzten pertsonentzako, etxerik ez dutenentzako edo bereziki kalteberak diren pertsonentzako ere zabaltzen dira. Eta, euren kontura, pertsona horiei bizitokia emateaz arduratzen diren irabazi asmorik gabeko erakundeei, enpresa publikoei eta administrazioei. Pertsona bereziki kalteberatzat joko dira udaletako oinarrizko gizarte-zerbitzuek hala baloratzen dituztenak.

Kasu horietan, egiturazko izaera handiagoa duenez, laguntzaren guztizko zenbatekoa hamabi hilabetetara luzatuko da; hortaz, 3.000 eurotara helduko da.

Agindu honetan aurreikusitako laguntza guztiak bateraezinak dira helburu bera duten gainerako laguntza publikoekin.

COVID 19

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAK TURISMO-SEKTOREARI LAGUNTZEKO 3 AGINDU ARGITARATU DITU, 2,8 MILIOI EUROKO AURREKONTUA DUTENAK

- **Sonia Pérez Ezquerria Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak turismo-sektoreari laguntzeko 3 agindu aurkeztu ditu gaur Gobernu Kontseiluan. Laguntza horien bidez, COVID-19ak sortutako premia batzuei erantzun ahal izango zaie**
- **Hauek dira aginduak: Lurralde Proiektu Turistikoetarako Laguntzen Programa (LPT); Turismoa Merkaturatzeko eta Sustatzeko Laguntzen Programa (TMS); eta Ekintzailatzeko eta Turismo Enpresen Lehiakortasunaren Hobekuntzarako Laguntzen Programa (ETELH)**

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Lurralde **Proiektu Turistikoetarako Laguntzak (LPT), Turismoa Merkaturatzeko eta Sustatzeko Laguntzak (TMS) eta Ekintzailatzeko eta Turismo Enpresen Lehiakortasunaren Hobekuntzarako Laguntzak (ETELH)** aurkeztu ditu gaur. Turismo-jarduerari laguntzeko eta bultzada emateko laguntza horietarako **2,8 milioi euroko zenbatekoa** bideratu da. Laguntza horien helburua da turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzea eta enpresa horiei laguntzea, eta, hartara, Covid-19aren ondorioz establezimenduei sor dakizkiekeen premia batzuk estali ahal izatea, hala nola establezimenduak egokitzea eta turismo-egoera berrira egokitutako produktu berriak sortzea.

Laguntza-programa hau **euskal turismo-sektoreari laguntzeko bigarren fasean** biltzen da, eta ekonomia suspertzea eta jarduera berrabiaraztea du helburu. Hortaz, pandemiaren hedapenaren berehalako ondorioak arintzera zuzentzen diren gainerako premiazko laguntzen osagarri gisa planteatzen da, eta Sailak diseinatutako bi aldiko estrategiaren parte da.

Proiektu Turistikoetarako Laguntzen Programa bideratzen da **turismo-helmugen erakargarritasuna eta turismo-esperientzia hobetuko** duten proiektuetara, baita helmugen lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetuko duten proiektuetara ere. Aurten, lotuta daude 2019an aldarrikatutako **Turismoaren Kode Etikoarekin**. Tokiko erakundeei eta turismo-lankidetzarako erakundeei zuzenduta dago, 1.450.000 euroko zuzkidurarekin.

Turismoa Merkaturatzeko eta Sustatzeko Laguntzak mikroenpresetara, enpresa txiki eta ertainetara eta elkarteetara bideratzen dira, turismoa dibertsifikatzen eta dinamizatzen lagunduko duten **ekitaldiak, produktu turistikoak eta esperientziak** babesteko, eta 717.000 euroko aurrekontua du. Bestalde, orotariko turismo-enpresei eta autonomoei (gida, ostatu, ekitaldien antolaketa, turismo aktibo, eta abarri) zuzendutako **Ekintzailatzeko eta**

Turismo Enpresen Lehiakortasunaren Hobekuntzarako Laguntzen bidez, enpresa berriak sortzeko ekintzailletza eta lehiakortasuna laguntzen da diruz.

Lehiakortasunaren kasuan, alderdi hauek sustatzen ditu: enpresa-berrikuntza eta soluzio teknologikoak garatzea; negozio-prozesuak berritzea eta I+G+b arloko jarduerak garatzea; kudeaketa adimenduneko sistemak txertatzea; enpresen turismo-eskaintza optimizatzea eta zabaltzea; jatetxe-arloko enpresetan edo turismo-ostatuko establezimenduetan obrak egitea eta ekipamendua eskuratzea; turismo-eskaintza egokitzea, turismo jasangarrira, arduratsura eta irisgarrira begira; turismo-jarduerak ingurunean sortzen duen inpaktua murrizteko inbertsioak egitea; eta irisgarritasuna errazteko teknologiak txertatzea. 652.000 euroko aurrekontua du.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

ITELAZPI EUSKO JAURLARITZAKO TELEKOMUNIKAZIOEN SOZIETATEAK 58 EREMU ZURI DESAGERRAZTEN LAGUNDUKO DU

- **Eusko Jaurlaritzak eta telekomunikazioen sozietate publikoak hitzarmena berritu dute, banda zabala hedatzen jarraitzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko konektagarritasun osoa lortzeko**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du "*Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren eta Itelazpi S.A. sozietate publikoaren arteko lankidetzeta-hitzarmena, 2020-2021-2022 ekitaldietarako Euskadiko biztanle-guneetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko laguntza-programa kudeatzekoa*". [Itelazpi S.A.](#) Eusko Jaurlaritzaren telekomunikazioen sozietateak lagunduko du "NGA eremu zurizat" jotzen diren Euskal Autonomia Erkidegoko beste 58 biztanle-guneetara banda zabala hedatzeko laguntzak kudeatzen. Izan ere, eremu zuri horietan ez dago, eta datozen 3 urteetan ere ez da aurreikusten, belaunaldi berriko banda zabaleko baldintzetan Internetarako sarbide-zerbitzuak ahalbidetuko dituen telekomunikazio-azpiegiturarik. Eusko Jaurlaritzak 700.000 euro bideratuko ditu helburu horretara.

Gobernu Kontseiluak, gaur, onartutako erabakiak ezartzen duenez, [Itelazpi S.A.](#) sozietate publikoak ardura hauek izango ditu:

- Aurkeztutako proiektuen dokumentazioa aztertzea eta, beharrezkoa izanez gero, hura behar bezala ulertzeko eta aztertzeko beharrezkoa izan daitekeen dokumentazioa eskatzea.
- Proiektuak aztertzea eta Ebaluazio Organoari igortzea.
- Laguntzak proposatzea eta Ebaluazio Organoari igortzea.
- Proiektuak egikaritzen direla egiaztatzea.
- Eskatutako aldaketen irispideari buruzko txostenak egitea. Hala badagokio, proiektua egikaritzearen inguruko gorabeheren ondoriozko ez-betetzeen espedienteari hasiera eman dakion proposatzea.

HITZARMENA

Hitzarmen honek aurreko hitzarmenak berritzen ditu. Hitzarmen hauei esker, 2017az geroztik, 473 "eremu zuri" desagerrarazi ahal izan dira, askotan bakartuta dauden biztanle-guneak eta landa-eremuak izan dira, telekomunikazio-azpiegiturarik ez izateagatik operadore pribatuen inbertsioetarako erakargarriak ez direnak.

Gaur onartutako hitzarmena gauzatuko da laguntzen mende dauden proiektuak egikaritzeko gehieneko epean, hau da, 24 hilabeteko epean, laguntzak eman direla jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita. Gainera, indarrean egongo da

hitzarmena sinatzen den egunetik laguntzak emateko espedienteen tramitazioa amaitzen den arte.

EUSKADI 2020 AGENDA DIGITALA

Eusko Jaurlaritzaren asmo handiko proiektu estrategiko hau 2016an onartutako "[Euskadi 2020ko Agenda Digitalean](#)" kokatzen da. Eusko Jaurlaritzak apustu argia egin du edozein biztanle-gunetan bizi diren pertsonen eta bertan kokatzen diren enpresen konektagarritasuna hobetzearen alde, biztanle kopurua eta tamaina edozein izanik ere. Azken helburua da zentro publikoen, enpresen eta etxeen konektagarritasuna hobetzea, horrela lortuko baita Euskal Autonomia Erkidegoa lurralde adimenduna, *Smart Country*, izatea. Horretarako, orain arte, ia 18 milioi euroko inbertsioa egin du Eusko Jaurlaritzak.

Halaber, programa horri esker, Euskal Autonomia Erkidegoak "*Europako 2020ko Agenda Digitalean*" ezarritako helburuak beteko ditu, hau da, belaunaldi berriko banda zabala (gutxienez 30 Mb/s) biztanle guztientzat unibertsalizatzea eta 2020. urterako biztanleen % 95ek 100 Mb/s-tik gorako abiadurako banda zabal ultralasterreko zerbitzuak kontratatuta izatea.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

AURTEN, EUSKO JAURLARITZAK 2,5 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU KOSTALDEKO GUNEETAKO GARAPEN LOKALEKO PROIEKTUETARA

- **2017az geroztik, 9 milioi euro baino gehiago dira helburu horretara bideratutakoak, eta 300 baino gehiago aurkeztu diren proiektuak**
- **Itsas Garapen Elkarteak Arrantzako Toki Ekintzarako Taldea da horren kudeaketaz arduratzen dena, eta 15 udalerritan eta Donostiako kaiaren aldean jarduten du**

Itsas Garapen Elkarteak Arrantzako Toki Ekintzarako Taldeari 2020rako onartu zaizkion Toki garapeneko proiektu parte hartzaileetarako laguntzak arautzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak emandako agindua onartu du Eusko Jaurlaritzak. Europako Itsas eta Arrantzako Funtsaren esparruan (FEMP) arrantza guneen garapen iraunkorrean laguntzeko, 2020an 2,5 milioi euro erabiliko dira guztira, programa hori finantzatzeko.

Itsas Garapen Elkarteak Arrantzako Toki Ekintzarako Taldea (GALP) arduratzen da laguntza horiek kudeatzeaz, toki garapen parte hartzailearen babespean (EDLP). Laguntza horien lehen edizioa 2017an izan zen; beraz, 2020ko hau laugarrena da.

Itsas Garapen Elkarteak Euskadiko 15 udalerritan jarduten du, bai eta Donostiako kaiaren aldean ere, horiek baitira arrantzarekiko mendekotasunik handiena duten aldeak. Hauek dira udalerririk horiek: Bermeo, Mundaka, Ondarroa, Getaria, Mutriku, Berriatua, Elantxobe, Orio, Hondarribia, Pasaia, Zumaia, Lekeitio, Lemoiz, Zierbena, eta Santurtzi. Horiek denek batera 141.500 biztanle inguru dituzte.

Aurreko ekitaldiak

Programa honen esparruan, 2019ko ekitaldian 2.232.500 euro erabili ziren guztira, eta 135 proiektu lagundu ziren (70 Bizkaian eta gainerakoak Gipuzkoan), 7 milioi euro baino gehiagoko inbertsioak aurreikusten baitzituzten. Horietako gehienak (63) proiektu produktiboak dira, eta horien atzetik enplegua sortzeko proiektuak (54) eta proiektu ez-produktiboak (18) daude.

Aurreko ekitaldiei dagokienez, 2017an 1.835.000 euro erabili ziren guztira eta 2018ko deialdian 2,6 milioi euro baino gehiagoko kopurua izan zen. Lurraldeka, 2017an eta 2018an Bizkaian guztira 74 proiektu baliatu ziren laguntzez, eta Gipuzkoan 42 guztira.

Horiek denak sustapen pribatukoak dira eta itsasertzeko eremuetan ekonomia dibertsifikatzen eta enplegua sortzen laguntzen dute. Proiektuen tipologiaren adibide gisa, hona hemen orain arte onartu diren batzuk:

Bizkaia:

- Bermeoko Neskabilen lan instalazioak.
- Arroyabe Denda, latakoko produktuan sustatzeko eta saltzeko establezimendua, Bermeo erdialdean.
- Bay of Biscay, turismo aktiboko eta itsasoko txangoen enpresa.

Gipuzkoa:

- Getaria Apartamentuak, ostatu turistikoaren modalitate berria Getarian.
- Sopak: Olagarroarekin hainbat plater lantzen dituen enpresa gastronomikoa.
- Manuelak II, arrantza tradizionala turismoarekin eta aisialdiarekin lotzeko jarduera berriak eskaintzen dituen enpresa.
- Elkanoren Ondarea, aisialdia, heziketa eta kultura Juan Sebastian Elkanoren figurarekin eta itsasoarekin lotura duten gai batekin bateratu nahi dituen proiektua.

Onuradunak

Laguntza hauen onuradunak izan daitezke pertsona fisikoak edo juridikoak, bai eta arrantzaleen kofradiak eta kofradien federazioak, arrantza sektoreko profesionalen elkartean eta elkarte horien federazioak, ekoizleen erakundeetan eta haien elkarteak, eta soilik arrantzaleek kofradiek edota arrantza sektoreko elkarteek osatuta dauden irabazi asmorik gabeko erakundeak ere.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

EUSKO JAURLARITZAK 134.000 EUROREN BEKAK EMANGO DITU NAUTIKA-ARRANTZA ESKOLETAKO IKASLEENTZAT

- **Azken bi ikasturteetan, guztira 245 pertsonak eskuratu dituzte joan-etorrietarako, janarirako eta material didaktikorako diren laguntza horiek**
- **Eusko Jaurlaritzak lehentasunezkoztat jotzen du gazteei sektorean sartzeko erraztasunak ematea eta, horren bitartez, sektorean belaunaldi berriak sartzeko eta sektorea modernizatzen laguntzea**

2019-2020 ikasturtean Pasaiako, Bermeoko eta Ondarroako Ikastetxeetan, hurrenez hurren, nautika-arrantzako ikasketak egiteko beken deialdia egiteko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak eman duen Agindua onartu du Eusko Jaurlaritzak. Laguntza horiek finantzatzeko 134.000 euro inguru erabiliko dira.

Ohiko bizilekutik kanpoan bizitzeko gastuak zein zentrorra egindako joan-etorriak, jana eta ikasketa materiala finantzatu ahal izango dira beka horiekin. Beken zenbatekoari dagokionez, bekadun bakoitzari emandako puntu kopuruarekiko zuzenki proportzionala izango da, Aginduaren oinarrietan ezarritako irizpideekin bat etorrira. Halere, pertsona bakoitzak 2.404,05 euro eskuratu ahal izango du gehienez ere.

Beka guztiak, haien zenbatekoa edozein dela ere, aldi bakarrean ordainduko dira, hau da, bekaren %100 batera ordainduko da, ikasturtearen amaieran, betiere ikasleak ikasturteari probetxu atera badio eta matrikulatutako modulu edo ikasgai guztiak gainditu badiu.

Beken zenbateko osoa berdina da 2017-18 ikasturtean, eta 17/18 ikasturtean 122 pertsonak izan ziren beken onuradunak (64 goi ziklokoak, 36 ziklo ertainekoak, eta 22 kostako patroizko balioaniztuneko ikasketakoak), horietatik 4 emakume izanik. 18/19 ikasturtean, berriz, 123 beka eman ziren, 117 gizonei eta 6 emakumei. Hala, diferentzia oraindik nabarmena bada ere, igoera txiki bat antzematen da ikasketa hauetaz interesa erakusten duten emakumeen kopuruan.

Sektorea gaztetzea

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailaren helburuetako bat da arrantzarekin lotura duten sektoreetako langileen trebakuntza sustatzeko politika egokia edukitzea. Eusko Jaurlaritzak, halaber, lehentasunezkoztat jotzen du gazteei sektorean sartzeko erraztasunak ematea eta, horren bitartez, sektorean belaunaldi berriak sartzeko eta sektorea modernizatzen laguntzea

Euskal Autonomia Erkidegoko itsas-arrantza arloko ikastetxeen bitartez eta beka programa honen bitartez erantzun efektiboa eman nahi zaie sektorean dauden prestakuntza premiei, "ad hoc" ikastaroak antolatuz, sektorearen behar puntualak

asetzeko, batetik, eta esandako ikastetxeek emandako itsas-arrantza arloko prestakuntza ematen jarraitzeko, bestetik.

Esleitzeko irizpideak

Bekak hautagaiak lortutako puntuazioaren arabera esleituko dira, eta hautagaiak esandako edozein eskolatan matrikulatuta egon beharko dira 2019-2020 ikasturtean. Puntuazioa, berriz, horretarako berariaz izendatutako Balorazio Batzorde batek ezarriko du. Puntuak irizpide hauen arabera esleituko zaizkio pertsona bakoitzari:

1. Egingo duen ikasketa maila
2. Ohiko bizilekuaren herritik eta ikasketa zentroaren herriaren arteko distantzia
3. Eskatzailearen baldintza pertsonalak eta familiarrak
4. Eskatzaileak edo bere familiak aurreko urtean eskuratutako diru sarrera gordinak, edozein dela ere sarrera horien jatorria

Beketarako eskaerak bide elektronikoetatik aurkeztuko dira, euskadi.eus helbidearen egoitza elektronikoan ([https:// www.euskadi.eus](https://www.euskadi.eus)).

Enplegua eta Gizarte Politikak

GOBERNUAK SUSPERTU SLri 50 MILA EUROKO DIRULAGUNTZA ESLEITZEA BAIMENDU DU, BERRIZKO OLAKUETA ETXEA PERTSONA ETORKINEN HARRERA-ZENTROA HOBETZEKO

- **Susperturen gizarte-xedea da lan-merkatutzeko zailtasunak dituzten pertsonak gizarteratu eta laneratzea**
- **Oinarrizko prestakuntzako eta lan-kualifikazioko jarduerak egiten ditu, eta enplegu araturako jarraibideak ematen**
- **58 leku ditu: nazioarteko babesak eskatzen duten familiak, emakumeak, paseko familiak eta gizonak**

Gobernu Kontseiluak Suspertu SLri 50 mila euroko dirulaguntza esleitzea baimendu du, Berrizko Olakueta Etxea pertsona etorkinen harrera-zentroan (Bizkaia) aterpea eta mantenua emateko instalazio eta zerbitzuak birmoldatu eta hobetzeko.

